| EZ OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO EXTRAORDINARIO<br><br>2018KO ABENDUAREN 19A / 19 DE DICIEMBRE DE 2018 | |
|---|---|
| **BERTARATUAK / ASISTENTES** | |
| **IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL**<br><br>D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna<br><br>**KONTUHARTZAILEA / INTERVENTOR**<br><br>D. David García Castro jauna | **ALKATE-UDALBURUA / ALCALDE-PRESIDENTE**<br><br>D. Miguel de los Toyos Nazábal jauna (PSE-EE).<br><br>**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**<br><br>D. Alberto Albistegui Zamacola jauna (PSE-EE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna (PSE-EE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea (PSE-EE).<br>D. Arcadio Benítez Dávila jauna (PSE-EE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna (PSE-EE).<br>D. Jon Iraola Iriondo jauna. (PSE-EE).<br><br>**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**<br><br>Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea (PSE-EE).<br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea (PSE-EE).<br>Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea (PSE-EE).<br>Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (Euskal Herria Bildu).<br>D. Josu Cristobal Churruca jauna (Euskal Herria Bildu).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (Euskal Herria Bildu).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (Euskal Herria Bildu).<br>D. Iñaki Penedo Eubieta jauna (Euskal Herria Bildu).<br>Dña. Eva Juez Garmendia andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria elena Ibañez Anucibay andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria Jesús Aguirre Unceta andrea (Irabazi). |

Eibarko hirian, 2018ko abenduaren 19an, eguerdiko ordubatak izanik, Udal Osoko bilkura egin zen ez ohiko bileran, udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

En la Ciudad de Eibar, a 19 de diciembre de 2018 y siendo las trece horas, se reunió en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/-as señores/as anteriormente menciona-dos/as.

**Alkate-udalburu jaunak** bilerari hasiera eman dio eta aztertu da honako

El **Sr. Alcalde-Presidente** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente.

**GAI-ZERRENDA**

**ORDEN DEL DÍA**

**ATAL BAKARRA.- ERREBAL FUNTZIO ANITZEKO ETA KULTURA-EKIPAMENDUKO ERAIKINAREN PROIEKTU ERABERRITUA.**

**ÚNICO.- APROBACIÓN DEL PROYECTO REFORMADO DEL EDIFICIO MULTIFUNCIONAL Y EQUIPAMIENTO CULTURAL ERREBAL.**

**Lamarain Cobo andreak** gogorarazi du duela hamaika urte PSE-EE udal taldeak Errebaleko merkatu-plazaren eraikina botatzea erabaki zuela, haren etorkizuna bermatuko zuen inolako planik egin gabe, geroago ikusi den bezala. Hamaika urte hauetan, parkinga izan da Errebalek izan duen gauzarik onena; merkatuko plaza eta baserritarrak, aldiz, ziurgabetasun-egoeran egon dira. Kudeaketa eskas horrek eragin du Eibar merkatu-plaza barik egotea; halaber,

La **Sra. Lamarain Cobo** recuerda que hace once años el grupo municipal del PSE-EE decidió demoler el edificio que albergaba la plaza del mercado de Errebal, sin ningún plan que garantizase su futuro, tal y como se ha comprobado posteriormente. En estos once años un parking ha sido lo mejor que ha tenido la plaza de Errebal, mientras que los puestos del mercado y los baserritarras permanecían en una situación de incertidumbre. Esta deficiente gestión ha

lanpostuak suntsitu dira, eta ez bakarrik merkatuan, Errebal kalea ere prekarizatu egin da.

Eta, seguru asko, kanpoko presioa izan da gobernu-taldea zerbait egitera eraman duena, galdu egin baita merkatu-plaza bat izateko aukera eraikin berriaren obrak amaitzen direnean.

Baina mugimendu horiek berandu datoz, prozesu parte-hartzailea amaitu zenetik bost urte igaro baitira; bost urte, Udalak izan dituenak baserritarrei eta Rialtoko postuen titularrei soluzio bat emateko. Baina gobernu-taldea ilargiari begira geratu da eta proposamen oro berandu, gaizki eta gezurrez inguratua dator.

Nolanahi ere, Lamarain andreak iragarri du bere taldeak lanean jarraituko duela proposamenak egiten, hala nola:

- Lehen sektorea Errebaleko merkatu berriarekin lotzea, hau da, baserritarrek Rialtoko merkatuan duten ikusgarritasun berbera izan behar dute.
- Herriko produktuen kontsumoa sustatzea eta produkzio

provocado que Eibar se quede sin plaza del mercado, así mismo, se han destruido puestos de trabajo, no sólo en aquella, sino que la misma calle Errebal se ha precarizado.

Y, probablemente, ha sido la presión externa la que ha llevado al equipo de gobierno a actuar, ya que se ha malogrado la posibilidad de contar con una plaza del mercado cuando finalicen las obras del nuevo edificio.

Pero, estos movimientos llegan tarde, puesto que han pasado cinco años desde que finalizó el proceso participativo; cinco años con los que ha contado el Ayuntamiento para ofrecer una solución a los baserritarras y a los titulares de los puestos de Rialto. Pero el equipo de gobierno ha permanecido "mirando a la luna" y toda propuesta llega tarde, mal y rodeada de mentiras.

De todas maneras, anuncia que su grupo seguirá trabajando realizando propuestas tales como:

- Vincular el sector primario con el nuevo mercado de Errebal, esto es, los baserritarras deben contar con la misma visibilidad que en el mercado del Rialto.
- Promover el consumo de productos locales como motor de creación de puestos de trabajo en

ekologikoaren esparruan lanpostuak sortzea eragitea.

Bi ideia horiek ez dira eurenak, baizik eta prozesu parte-hartzailearen emaitza.

Bere iritziz, ez da nahikoa 10.000 euro erabiltzea "slow food" jardunaldi baten antolaketan, kontu horretan dagoen ekintza falta justifikatzeko modu bat baino ez baita. Beraz, beharrezkoa da proposamen horiek lantzea eta horretarako eskatzen du baserritarrekin hitz egitea.

Obra-kontratuari dagokionez, bere garaian Euskal Herria Bildu udal taldeak salatu egin zuen "Dragados" enpresak eskainitako lizitazio-prezioan egindako ausarkeriazko baja eta defendatu zuen Udalak beharrezko ziren klausulak sartu behar zituela egoera hori ez gertatzeko. Arrazoi horrengatik, orain da unea klausula horiek ezartzeko honako helburu hauek kontuan izanik:

- Klausula sozialen bidez lan-baldintza duinak ziurtatzea, onartezina izango litzatekelako Eibar bezalako administrazio publiko batek halako egoera bat ahalbidetzea.

el ámbito de la producción ecológica.

Ambas ideas no son propias, sino fruto del proceso participativo.

A su entender, no es suficiente con emplear 10.000 euros en la organización de una jornada de "slow food", ya que no es más que una forma de justificar la inacción en este asunto. Por tanto, resulta necesario trabajar estas propuestas, para lo que ruega que se dialogue con los baserritarras.

Respecto al contrato de obras como tal, en su momento el grupo municipal de Euskal Herria Bildu ya denunció la baja temeraria en el precio de licitación ofertado por la empresa "Dragados" y defendió que el Ayuntamiento debería haber introducido las cláusulas necesarias para que esa situación no se hubiera producido. Por esta razón, ahora es el momento de fijar dichas cláusulas con los siguientes objetivos:

- Asegurar condiciones dignas de trabajo a través de cláusulas sociales, puesto que sería inadmisible que una administración pública como el Ayuntamiento de Eibar permitiera una situación así.

- Makroenpresei ateak ixtea eta, ahal den neurrian, ingurukoei zabaltzea.

- Diru publikoaren banaketa hobetzea, aberastasuna hemen geratzeko xedez.

Bere iritziz, oraindik ere helburu horiek lortzeko garaiz gabiltza.

Azkenik, gogoeta egin nahi du duela bost urte hasi zen eta oraindik amaitu ez den prozesu parte-hartzaile baten ondorioei buruz. Gai honi dagokionez, bere taldeak ez du onartuko beste alternatibarik Errebaleko etorkizuneko eraikinaren erabilera balioa anitza izatea baino. Halaber, uste du oso aberasgarriak direla Eibarko kultur eragileen ekarpenak espazio horren gestioa eta programazioa definitzeko orduan, nahiz eta ez izan gobernu-taldearen oso gustukoak.

Kontu horiek guztiak argitzen diren arte, eskatzen du behar diren inbertsioak egin daitezela Rialtoko merkatuan, baserritarrak ahalduntzeko, zeren eta oraingo merkatua indartzen bada sendo ailegatuko baita Errebal berrira.

- Cerrar las puertas a las macro empresas y, en la medida de lo posible, abrirlas a las del entorno,

- Mejorar el reparto del dinero público con la finalidad de que la riqueza se quede aquí.

En su opinión, aún se está a tiempo de alcanzar estos objetivos.

Para finalizar, desea reflexionar sobre las consecuencias de un proceso participativo que se inció hace cinco años y que aún no ha finalizado. A este respecto, desde su grupo no admitirán más alternativa que la del uso polivalente del futuro edificio de Errebal. Igualmente, considera sumamente enriquecedoras las aportaciones de los agentes de la masa cultural de Eibar a la hora de definir la gestión y programación de ese espacio, a pesar de que aquéllos no resulten del agrado del equipo de gobierno.

Mientras todas estas cuestiones se aclaran, solicita que se lleven a cabo las inversiones necesarias en el mercado del Rialto con el fin de empoderar a los baserritarras, puesto que si se fortalece el actual mercado se llegará con fuerza al nuevo de Errebal.

**Mendicute Rodríguez jaunak** hitza hartu du eta www.iarriola.com webguneko mezu bat aipatu du, 2003. urtekoa:

"Izan konfiantza!, merkatu berri bat tradizioa eta modernitatea uztartuko dituena; baserritarren betiko postuekin; bere harategiekin, arraindegi eta fruta-postuekin; supermerkatu modernoarekin, kafetegiarekin".

Adierazi du eibartarrek konfiantza jarri zutela proiektu horretan eta, geroago, hainbat promesa egin zirela obren eta ekipamenduaren hasierari eta amaierari buruz.

Horri dagokionez, esan du mesfidantza sortu dela eta zorroztasun eta planifikazio falta egon dela; eta leporatzen die egitasmo hau herritarrei zein oposizioko udal taldeei informazioa ezkutatuz egin dela. Horrek guztiak eragin du, 11 urte geroago, gune degradatu bat edukitzea, komertzioa gainbehera joatea, eta baserritarren postuak aparte eta babesik gabea egotea; eta guztia sentsazioa izanik ez dela ezagutzen hurrengo kapitulua eta noiz arte egon beharko diren egoera horretan.

Eibarko EAJ-PNV udal taldearen bozeramalea gobernu-taldeari zuzendu

El **Sr. Mendicute Rodríguez** comienza su intervención reproduciendo un mensaje de la página web www.iarriola.com del año 2003:

"¡Confía!, un nuevo mercado que conjugará tradición y modernidad; con los típicos puestos de los baserritarras, con sus carnicerías, pescaderías y fruterías; su moderno supermercado, su cafetería".

Afirma que los eibarreses confiaron en ese proyecto y que, posteriormente, se realizaron diferentes promesas sobre el comienzo y la finalización de las obras y del equipamiento.

A este respecto, señala que se ha sembrado desconfianza, regándose todo con falta de rigor y planificación, y reprocha que este proyecto se ha llevado a cabo con omisión de información tanto a la ciudadanía como a los grupos municipales de la oposición. Todo ello ha conducido, después de 11 años, a que nos encontremos con una zona degradada, un comercio en declive y unos puestos de baserritarras apartados y ninguneados a la intemperie, con la sensación de no conocer cuál será el siguiente capítulo y hasta cuándo tendrán que permanecer en esa situación.

El portavoz del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV se dirige al equipo de

zaio bere gestio eskasagatik azalpenak eskatuz, eta adierazi du herritarrek jokatzeko beste modu bat espero dutela. Bere iritziz, jokaera hori ez da eguerdiko ordu batean osoko bilkura ez-ohiko baten deialdia eginez ezkutatzen, hala herritarren parte hartzea saihestuz, ez eta propaganda-hitzaldiekin ere; eta galdetu du ea guztiaren erantzukizuna Eusko Jaurlaritzari leporatuko ote zaion 500.000 euroko dirulaguntza bat emateagatik edo oposizioari herriaren interesen alde egiteagatik. Gobernu-taldeari egozten dio erakunde honen izena lohitu izana urte hauetan zehar.

gobierno interpelándole por su deficiente gestión y manifiesta que la ciudadanía espera otra forma de actuar. En su opinión, este proceder no se oculta convocando una sesión plenaria de carácter extraordinario a la una del mediodía, evitando así la participación de la población, ni con discursos ni propaganda, y pregunta si se hará responsable de todo ello al Gobierno Vasco por haber concedido una ayuda de 500.000 euros o a la oposición por velar por el interés de la ciudad. Acusa al equipo de gobierno de haber mancillado el nombre de esta institución a lo largo de estos años.

Era berean, merkatarien, auzotarren eta baserritarren nazka eta haserrea helarazi du eta sinesgogor azaldu da obrak amaitzeko epe berriarekiko.

Así mismo, transmite el hartazgo y la indignación de comerciantes, vecinos y baserritarras y muestra su incredulidad sobre un nuevo plazo para la finalización de las obras.

Agerian utzi du Udalbatzaren akordio falta prozesu parte-hartzailearen emaitzaren inguruan, ez memorian ezta proiektuaren planoetan ere ez zelako baserritarren kokapena jasotzen; era berean, ukatu egiten du horri buruz Andirao elkartearekin hitz egiten hasi izana, Batzordean baieztatu zen bezala.

Pone de manifiesto la falta de acuerdo de la Corporación acerca del resultado del proceso participativo, ya que ni en la memoria ni en los planos del proyecto se recogía la ubicación de los baserritarras; del mismo modo, niega que se hubiera comenzado a dialogar al respecto con la asociación Andirao tal y como se afirmó en Comisión.

Jarraitu du esaten proposamen hau aurrera egindako ihesaldi bat dela; izan

Continúa su intervención calificando de huida hacia adelante esta

ere, bat-batean Errebal eraikinaren eraikuntzarekin lotutako guztia urgentziazkoa da, Hirigintzako Lan Batzordeko hiru bilkura deitu baitira eta ez-ohiko bilkura hau. Lastertasun hori ez dator bat 2016. eta 2017. urteetan bere taldeak gai horretaz eztabaidatzeko Obra Batzorde Aholkulariaren bilera bat egin zedin behin eta berriz egin dituen eskaerekin. Hala, denbora galduz, Batzordeak deitu barik eta agerian zegoena ukatuz amaitu da 2015-2019 agintaldia; eta, honaino iritsita, azken orduan konpondu nahi da arazoa, kontuan hartuta alkate-udalburu jauna ez dela gauza izan osoko bilkura bat deitzeko Larrialdiko Gizarte Laguntzak edo Eibarko Kirol Elkarteari eragiten dioten hirigintza-planak onartzeko. Horregatik guztiagatik, jakin nahi du zer urgentzia motari erantzuten dion gobernu-taldeak.

propuesta, puesto que, repentinamente, todo lo relacionado con el proyecto de construcción del edificio de Errebal es urgente, habiéndose convocado tres Comisiones de Trabajo de Urbanismo y este Pleno Extraordinario. Esta premura choca con las reiteradas peticiones de su grupo realizadas a lo largo de los ejercicios 2016 y 2017 para que se hubiera convocado una reunión de la Comisión Asesora de Obras con el objeto de debatir sobre este tema. Con esta pérdida de tiempo, sin convocatoria de Comisiones y negando las evidencias, se ha amortizado el mandato 2015-2019; y, llegados a este punto, se pretende solucionar el problema a última hora, cuando el Sr. Alcalde-Presidente no ha sido capaz de convocar una sesión plenaria para aprobar Ayudas de Emergencia Social o planes urbanísticos que afectan a la Sociedad Deportiva Eibar. Por todo ello, desea saber a qué tipo de urgencias obedece el equipo de gobierno.

Era berean, jakin nahiko luke zein izan den gestio horren kostua Eibarko herriarentzat denboran eta dirutan, eta zer neurri hartuko diren arazoak are gehiago korapilatzen jarrai ez dezan; zehatzago, galdetzen du ea aurrera jarraituko den baserritarren kontsentsurik gabe edo administrazio-baldintza berezien agiriaren

Igualmente, le gustaría conocer cuál ha sido el coste de esta gestión en tiempo y en dinero para la ciudad de Eibar y cuáles son las medidas que se van a adoptar para que este problema no siga complicándose aún más; en concreto, pregunta si se va a seguir adelante sin el consenso de los baserritarras o sin

irizpideak adostu barik; edo beste udal talde batzuek lotetan lizitatzeko egindako proposamena onartuko den, edo herritarrekiko bilera bat deituko den proiektuari buruz eztabaidatzeko, duela hamar urte eskatu zen bezala.

acordar los criterios del pliego de cláusulas administrativas particulares, o si se aceptará la propuesta formulada por otros grupos municipales para licitar por lotes, o si se convocará una reunión ciudadana para debatir sobre este proyecto, tal y como se solicitó hace diez años.

Bere taldeak ulertzen du eta baita partekatu ere herritarren haserrea, baserritarren kezka eta merkatu-plazan postu bat duten titularren ziurgabetasuna; ulertzen eta partekatzen ez dutena da gobernu-talde honen jokamoldeak, iraganaren parte den gobernu-taldea.

Su grupo comprende y comparte el malestar popular, la preocupación de los baserritarras, así como la incertidumbre de los titulares de un puesto en la plaza del mercado, pero lo que no entienden ni comparten son las formas de actuar de este equipo de gobierno que ya forma parte del pasado.

**Aguirre Unceta andreak** azpimarratu du Errebal inguruan mugikortasuna erraztea garrantzizkoa dela, eta eskatu du Errebalgo merkatuko orubea inguratzen duen hesia kentzea eta, horren ondorioz, espaloia zabaltzea, neurri horiekin gutxitu egin liteke-eta inguruko auzotarren eta merkatarien haserrea. Halaber, harrituta agertu da Arraguetatik Coliseora doan espaloia handitu nahi delako, eta, bere ustez, ez da une hau obra hori egiteko unea, izan ere, zati horretan trafiko-pilaketa handiak izaten dira eta oinezkoek hor izaten dute ibiltzeko zailtasun gehien.

La **Sra. Aguirre Unceta** destaca la importancia de favorecer la movilidad en la zona de Errebal, para lo cual reclama la eliminación de la valla que rodea el actual solar del mercado y la consiguiente ampliación de la acera, lo que podría mitigar el enorme hartazgo de los vecinos y comerciantes de la zona. Al mismo tiempo, muestra su sorpresa por la ampliación de la acera que va desde Arragueta hasta el Coliseo y consiera que este no es el momento de ejecutar esa obra puesto que, precisamente, ese es uno de los tramos en los que más embotellamientos de tráfico se producen

y donde los peatones tienen más dificultades para circular.

Halaber, berriz ere aztertzea nahi luke proiektuan aurreikusitako dorreak eragingo lukeen inpaktu bisuala.

También desearía que se retomase el debate en torno al impacto visual que generaría la torre prevista en el proyecto.

Eta, azkenik, "joko ez oso garbia" iruditzen zaio PSE-EE udal taldearen planteamendua, alegia, merkatu-plaza berri bat baztertzea komertzio pribatuaren lehia saihesteko, zeinak, gainera, baserritarren lanpostuak desagertzea eragingo lukeen.

Y por último, califica como "juego poco limpio" el planteamiento del grupo municipal del PSE-EE de descartar una nueva plaza del mercado para evitar así la competencia al comercio privado, lo que supondría además la desaparición de los puestos de los baserritarras.

**Benítez Dávila jaunak** zehaztu du Udalbatzaren iritzia jakiteko ekarri den gaia obraren exekuzioa dela eta ez etorkizuneko eraikinari emango zaizkion erabilera zehatzak.

El **Sr. Benítez Dávila** puntualiza que el asunto que se somete a la consideración del Pleno municipal es la ejecución de la obra y no los usos concretos que se otorgarán a los espacios del futuro edificio.

Aitortzen du egitasmo konplexu baten aurrean gaudela, eta denboran asko luzatu dela; hiru fase bereizi ditu.

Reconoce que estamos ante un proyecto complejo que se ha prolongado en el tiempo, distinguiendo tres fases.

Lehen aldia 2007tik 2010era artekoa izango litzateke, zehatzago, 2010eko uztailean Udalbatzak "SPV Bulevar Eibar, S.L." enpresari adjudikatu zion merkataritza-zentro bat eraikitzeko obra-kontratua, zeinak herriko merkatarien

Un primer período se extendería de 2007 a 2010, y en concreto, en julio de 2010 el Pleno adjudicó a la empresa "SPV Bulevar Eibar, S.L." el contrato de obras para la construcción de un centro comercial, que contó con el beneplácito

aldeko oniritzia izan zuen eta bakarrik bi boto izan zituen kontra.

Jarraian, 2010eko urtarrilaren 25eko osoko bilkuraren aktaren zati bat irakurri du; hain zuzen, gai-zerrendaren 2. puntuaren bosgarren aurrekariak honela dio:

*Bosgarrena.- Salerosketako eskritura publikoa egin ondoren, mundu mailako krisialdi ekonomiko bat etorri da, finantzen alorrean, eraikuntzan eta etxegintzan eragin handia izan duena; lizitazio hura egin zen sasoian krisialdiaren tamaina aurreikustea ezinezkoa zen.*

*Atzeraldi ekonomiko latz horrek bere eragina izan du baita lizitazio-xede izan zen Partzelan egitekotan zegoen Merkataritza Zentroaren sustapenean ere; horrela, lehendabizi, azaro larriak jarri dira agerian, egitekotan zegoen inbertsioaren finantza-kontratua gauzatzen utzi ez dutenak.*

Era berean, obrak finantzatu behar zituen erakundeak bidalitako posta elektronikoaren zati bat aipatzen du:

*"gaurko egunez ezinezkoa dugu inongo xedapenik ematea funtsezko baldintzetako bat ez delako betetzen*

de los comerciantes de la ciudad y únicamente con dos votos en contra.

A continuación, da lectura a un extracto del acta de la sesión plenaria del 25 de enero de 2010; en concreto, el antecedente quinto del punto 2 del orden del día reza como sigue:

*"Quinto.- Con posterioridad a la fecha de otorgamiento de la escritura pública de compraventa, ha devenido una crisis económica a nivel mundial con especial incidencia en los sectores financiero, de la construcción e inmobiliario cuyas desproporcionadas dimensiones no era posible prever en la fecha en que se produjo la referida licitación.*

*La virulenta recesión económica experimentada ha tenido su lógica incidencia en la promoción del Centro Comercial previsto en la "Parcela" objeto de la licitación, de tal forma que, en primer lugar, se han puesto de manifiesto graves problemas que han imposibilitado la ejecución del contrato de financiación de la inversión proyectada."*

Así mismo, se refiere a parte del correo electrónico enviado por la entidad que iba a financiar las obras:

*"(…) a día de hoy no nos es posible autorizar ninguna disposición porque no se cumple una de las*

*(merkataritza-zentroaren "practical completion" edo obraren harrera-akta 2010eko apirilaren 30erako izango zela), zeinak Bankuak mailegua ematerakoan kontuan hartu zuen.*

Erreferentzia horiek ikusita, esan du proiektua geldi egotearen erantzukizuna ezin zaiola bakarrik Eibarko Udalari leporatu, eta kontuan hartu behar dela baita ere mundu mailan lehertu zen krisi ekonomiko-finantzarioa, Europan 15 milioi langabe eragin zituena, haietatik 3 Espainian eta 100.000 Euskadin.

Bigarren aldi bat izango litzateke 2010etik 2015era bitartekoa. Hala, 2010. urtean “SPV Bulevard Eibar, S.L.” enpresarekin izenpetutako kontratua deuseztatu egin zen, finantzazio faltagatik ezinezkoa zelako aurrera eramatea; geroago, oposizioaren talde batek eskatuta, bigarren eta hirugarren eskaintza onena egindako lizitatzaileei eskaini zitzaien obrei berrekiteko aukera. Irtenbide horren porrotaren ostean, eta beste udal talde baten proposamenez, prozesu parte-hartzaile bat antolatu zen, merkataritza-zentroaren bideragarritasuna aztertzeko. Beraz, bost urtetan zehar adostu zen partzelaren zertarakoa.

*condiciones esenciales (“practical completion” del centro comercial el 30 de abril de 2010) que tuvo en cuenta el Banco a la hora de conceder dicho préstamo.”*

A la vista de estas referencias, afirma que la responsabilidad sobre la paralización de este proyecto no puede atribuirse en exclusiva al Ayuntamiento de Eibar, sino que también hay que tener en cuenta la crisis económico-financiera que estalló a nivel mundial y que provocó 15 millones de desempleos a nivel Europeo, 3 de ellos en España y 100.000 en Euskadi.

Una segunda etapa abarcaría el período comprendido entre los años 2010 a 2015. Así, en el año 2010 se rescindió el contrato suscrito con “SPV Bulevar Eibar, S.L.” debido a la imposibilidad de llevarlo a cabo por falta de financiación; posteriormente, a petición de un grupo de la oposición, se ofreció a los licitadores que habían presentado la segunda y tercera mejor oferta la posibilidad de retomar las obras. Ante el fracaso de esta alternativa, y a propuesta de otro grupo municipal, se organizó un proceso participativo para analizar la viabilidad del centro comercial. Por tanto, durante cinco años se consensuó el destino de la parcela.

Azken aldia izango litzateke 2015. urtetik gaur egunera artekoa; tarte horretan, “Dragados” enpresari adjudikatu zitzaion eraikinaren kontratua eta geroago suntsitu egin zen, zeren adjudikaziodunak 2,5 milioi euroko gainkostu bat egotzi nahi zuen, eta Udala ez zegoen prest hori onartzeko, xantaia modu bat zela iritzirik.

La última etapa iría desde el año 2015 hasta la actualidad; en este tiempo, se adjudicó a la empresa “Dragados” el contrato para la construcción del edificio en cuestión y, la posterior rescisión de dicho contrato, puesto que la adjudicataria pretendía imputar un sobrecoste de 2,5 millones de euros, a lo que el Ayuntamiento no estaba dispuesto al considerarlo una forma de chantaje.

Ondorioz, orain berriz ere enpresak abandonatuta utzitako proiektua hartuko da, eta, horregatik uste du Udalak ez duela denbora galdu proiektu hori aurrera eramateko orduan.

Por tanto, en la actualidad se retoma el proyecto que la empresa dejó abandonado, por lo que entiende que el Ayuntamiento no ha perdido el tiempo a la hora de llevar adelante este proyecto.

**Alkate-udalburu jaunak** hartu du hitza esateko Udal honetako Alkatetzan dagoenetik, sekula ez duela ukatu ez-ohiko Udal Bilkura bat egitea, ez teknikariei, ez oposizioko taldeei, ez hirugarrenei, uste duelako eskari hori justifikatuta dagoela.

El **Sr. Alcalde-Presidente** interviene para dejar constancia que, desde que ostenta la Alcaldía de este Ayuntamiento, nunca ha negado la celebración de un Pleno extraordinario ni al personal técnico, ni a los grupos de la oposición ni a terceros porque entiende que esa petición estará justificada.

Halaber, argitu nahi du zein den bere jarrera baserritarren merkatuari buruz, izan ere, espazio gutxi okupatu arren kualitatiboki oso garrantzitsua da; zehatzago, aurreikusita dago Errebaleko etorkizuneko espazioak halako merkatu mota bat edukitzea, ohiko merkatuko zortzi postuz gain. Bere planteamendua bat dator

Igualmente, desea aclarar su posición respecto al mercado de los baserritarras, que ocupa poco espacio pero que cualitativamente hablando es muy importante; en concreto, se prevé que el futuro espacio de Errebal cuente con ese tipo de mercado además de ocho puestos para el mercado ordinario. Su

prozesu parte-hartzailearen ondorioekin, hau da, espazio berriak harreman garbia izan behar du baserritarrekin eta bermatu behar du daukaten espazioak Rialtoko behin-behineko merkatuan zeukaten bisibilitate berbera edukitzea; horren harira, Andirao elkarteekin eta Debemenekin lan egiten ari da, jarduera komertzial horrek bete behar dituen baldintzak zehazteko.

planteamiento coincide con las conclusiones del proceso participativo, según las cuales, el nuevo espacio debe mantener un relación clara con los baserritarras y garantizar un espacio con la misma visibilidad que tenían en el mercado provisional del Rialto; en esta línea se está trabajando con las asociaciones Andirao y Debemen para poder determinar las condiciones que debe cumplir esa actividad comercial.

Horregatik guztiagatik, ukatu egin du lehen sektorearekin duen konpromisoan huts egin duenik, baina berresten du aipatutako prozesu parte hartzailearen beste ondorio bat partekatzen duela, alegia, baztertu egiten duela ohiko merkataritza-gune bat edo udal merkatu bat, nahiz eta espazio horrek jarraitu behar duen merkatu-komertzio motaren bati lotua, baina birdimentsionatu egin beharko da lanpostuei dagokienez eta berrikuntza bilatu edukian.

Por todo ello, niega que haya faltado a su compromiso con el sector primario, pero confirma que comparte otra conclusión del mencionado proceso participativo cuando descarta un centro comercial o mercado municipal al uso, aunque ese espacio debe seguir vinculado a algún tipo de comercio de mercado redimensionado en cuanto a puestos e innovación en su contenido.

Azken batean, orain hasten den fasea prozesu parte-hartzaile berri bat da zehazteko ea zortzi postu horiek merkatu tradizionalera bideratu behar diren edo beste erabilera berritzaileago batzuetara, hala nola kilometro 0ko produktuen eta produktu ekologikoen komertzializaziora edo gizarteratzea ahalbidetzen duten prozesuetara.

En definitiva, la fase que se abre ahora es un nuevo proceso participativo para concretar si esos ocho puestos van a destinarse al mercado tradicional o a usos más innovadores como la comercialización de productos kilómetro 0 y ecológicos, o a procesos que faciliten la inserción social.

**Mendicute Rodriguez jaunak** absurdotzat jotzen du merkatu-plazaren obra gauzatzea, geroago baserritarrekin bertan non kokatu adosteko. Halaber, ez sinestekoa iruditzen zaio PSE-EE udal taldearen autokritika falta, izan ere, bakarrik hartzen du bere gain akordioetara iristea saiatu izanaren erantzukizuna; atzerapenen arrazoiak, aldiz, izango lirateke EAJ-PNV/EA taldeak merkataritza gune baten bideragarritasuna baloratu nahi izan zuela edo Euskal Herria Bildu taldeak prozesu parte-hartzaile bat eskatu zuela; horri guztiari mundu mailako krisi finantzario gehitu beharko litzaioke.

Gogorarazi nahi du EAJ-PNV/EA udal taldeak, oposizioaren gainerako taldeek bezala, uko egin ziola orube hori merkatu plazarekin eta aparkaleku batzuekin batera 650.000 eurotan saltzeari; orobat, uko egin zion ondoren egin zen berrerosketari, salmenta-prezioaren halako bi ordainduta.

Era berean, uko egin zion behin-behineko merkatu-plaza Bittor Sarasketa kaleko aparkalekuko karpa batean jartzeari, noiz eta PSOE-EE udal taldeak exajeraziotzat jotzen zuenean Rialto zinema urtebete eskaserako alokatzea.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** considera absurdo ejecutar la obra de la plaza del mercado para posteriormente acordar con los baserritarras su ubicación en la misma. También considera inaudita la falta de autocrítica del grupo municipal del PSE-EE, ya que únicamente se responsabiliza de haber intentado llegar a acuerdos, mientras que los retrasos se deberían a que en su día el grupo municipal de EAJ-PNV/EA quiso calibrar la viabilidad de un centro comercial o que el grupo municipal de Euskal Herria Bildu solicitó un proceso participativo; a todo ello habría que sumar la crisis financiera mundial.

Quiere recordar que el grupo municipal de EAJ-PNV/EA, igual que el resto de la oposición, se negó a que se malvendiera ese solar, junto con el espacio para la plaza del mercado y unos aparcamientos, por 650.000 euros; también se negó a la posterior recompra por el doble del precio de venta.

Igualmente, también se negó a que la plaza del mercado provisional se ubicara en una carpa en el aparcamiento de la calle Bittor Sarasketa, cuando desde el grupo municipal del PSE-EE se consideraba exagerado alquilar el cine Rialto para poco más de un año.

Gai hau hainbeste luzatu izanaz gogait eginda daudela adierazi du eta gobernu-taldearen autokritika salatu du eta honen eraginpean dauden pertsonenganako enpatiarik eza, eta baserritarrekiko eta merkatu-plazako saltokietako titularrekiko harreman falta atzoko egunera arte. Adierazi du prozesu parte-hartzailearen ondorioen txostenak apustu egiten zuela merkataritza gune bat baztertuz merkatu-plazaren saltokiak mantentzearren, bai eta lanpostu kopurua gehitzearren ere; eskatzen zen soluzio bat ematea emakidak zituzten pertsonei, edo, halakorik ezean, akordio batera iristea. Gobernu-taldeari leporatzen dio iruzur egitea Rialtoko behin-behineko azokara joan zirenei, etorkizuneko plazan leku bat ziurtatuz; eta gaur egin ukatu egiten zai posibilitate hori beren lizentzia iraungi egin delako.

Muestra su hartazgo por la prolongación en el tiempo de este asunto y denuncia la nula autocrítica y empatía del equipo de gobierno hacia las personas afectadas, la falta total de contacto con los baserritarras y con los titulares de los puestos de la plaza del mercado hasta el día de ayer. Manifiesta que el informe de conclusiones del proceso participativo apostaba por mantener los puestos de la plaza del mercado, descartando un centro comercial, así como la ampliación del número de puestos; se instaba a buscar una solución a las personas que mantenían las concesiones o, en su defecto, llegar a un mutuo acuerdo. Acusa al equipo de gobierno de haber engañado a quienes se trasladaron al mercado provisional de Rialto, asegurándoles un lugar en la futura plaza, y hoy se les niega esta posibilidad porque su licencia ha caducado.

Horregatik guztiagatik, bere taldeak ezin dio oniritzia eman ez proiektu honi ez gobernu-talde honi, eta bere taldeak duen ekintza-ahalmena erabiliko du bidezkoak diren aldaketak egiteko, baina betiere Eibarko gizartearen eskutik, oro har, eta honen eraginpean dauden eragileen eskutik, hau da, bereziki, baserritarren eskutik. Bere udal taldearen abstentzioa iragarri du eta adierazi du abstentzio hori

Por todo ello, su grupo no puede dar el visto bueno ni a este proyecto ni a este equipo de gobierno y se reserva la capacidad de acción de su grupo para introducir las modificaciones que sean necesarias, pero siempre de la mano de la sociedad eibarresa, en general, y de los agentes afectados, especialmente los baserritarras, en particular. Anuncia la abstención de su grupo municipal,

zaintza proaktibotzat ulertu behar dela, orain arte izan den bezala.

abstención que hay que entenderla como una vigilancia proactiva, como ha sido hasta ahora.

Amaitu du esanez bere hitzek min egin dezaketela, baina bere taldeari benetan min ematen diona merkatu-plazako saltokien utzarazpena dela, baserritarren egoera, gobernu-taldeak erdigunea "zikinleku" bihurtu izana, aparkaleku falta edo espaloien egoera, eta, batez ere, udal gobernuaren jauntxokeria.

Finaliza su intervención reconociendo que sus palabras pueden doler, pero a su grupo lo que realmente le duele es el desahucio de los puestos del mercado, la situación de las baserritarras, la “cochambre” en la que el equipo de gobierno ha convertido el centro de la ciudad, la falta de aparcamiento o la situación de la acera, y, sobre todo, la actitud caciquil del gobierno municipal.

**Lamarain Cobo andreak** adierazi du azken hamaika urte hauetan behar adina aldiz baloratu dutela proiektua, bai eta haren kudeaketa eskasa. Bere taldearen iritziz, alderdirik garrantzitsuena da espazio horri emango zaion erabilera eta, zentzu horretan, bere taldeak proposamenak egiten jarraituko du.

La **Sra. Lamarain Cobo** afirma que ya se ha valorado suficientemente a lo largo de los últimos once años el devenir de este proyecto, así como la deficiente gestión al respecto. En opinión de su grupo, el aspecto más importante es el destino que se dará a ese nuevo espacio y, en ese sentido, su grupo continuará aportando propuestas.

Tamalez, ez du partekatzen azkenaldian Errebal eraikinaren balizko erabileren inguruan entzundakoa, ez baitator bat prozesu parte-hartzailearen ondorioekin. Zehazki, kontaktuak izan dira beste esparru batzuetako kudeatzaileekin, hala nola Ficoba edo Basque Culinary Centerrekin, baina bere ustez badira eredu gertuagokoak, esaterako Azpeitiko

Lamentablemente, no comparte lo escuchado últimamente sobre los posibles usos del edificio de Errebal, puesto que no coincide con las conclusiones del proceso participativo. En concreto, se han mantenido contactos con los gestores de otros recintos como Ficoba o Basque Culinary Center, pero cree que hay ejemplos más cercanos,

merkatua, non ohiko saltokiekin batera baserritarrenenak ere aurkitzen diren. Beraz, gobernu-taldeari eskatzen dio elkarrizketa benetako bat izan dezala baserritarren ordezkariekin.

como el mercado de Azpeitia, en el que conviven los puestos al uso con los de los baserritarras. Por tanto, ruega al equipo de gobierno que dialogue sinceramente con los representantes de los baserritarras.

Halaber, gogorarazi nahi du, proiektu honekin 2007 eta 2010 urteen artean gertatutakoa gorabehera, 2011. urtean gobernu-taldea, Eibarko EAJ-PNV udal taldearen babesarekin, saiatu zela Errenteriako merkataritza gunearen modeloa gure herrira ekartzen.

También desea recordar que, a pesar de lo acontecido en relación con este proyecto entre los años 2007 a 2010, en el año 2011 el equipo de gobierno, con el apoyo del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV, pretendió importar a nuestra ciudad el modelo de centro comercial existente en Errenteria.

Era berean, oinarrizkotzat jotzen du kontu handiz idaztea etorkizuneko obra-kontratuaren administrazio-klausula berezien pleguak, ez dadin gertatu “Dragados” enpresaren kontratuaren suntsipena bezalako gertakari bat.

Así mismo, cree primordial que se ponga especial cuidado en la redacción de los pliegos de cláusulas administrativas particulares del futuro contrato de obras para que no se viva un episodio como el de la rescisión del contrato a la empresa “Dragados”.

Hitz batez, gobernu-taldeari exijitzen dio argi dezala zein den Errebaleko funtzio anitzeko eraikinarentzat nahi duen erabilera, eta eskatzen dio lan egin dezala, eta ez dezala denbora galdu, orain arte gertatu den bezala.

En definitiva, exige al equipo de gobierno que aclare cuál es el uso que desea para el futuro edificio polivalente de Errebal y le conmina a trabajar y no perder el tiempo tal y como ha sucedido hasta el momento.

**Aguirre Unceta andreak** uste du proiektuaren exekuzioa hainbeste luzatzearen arrazoia merkatu zaharra eraisteko egon zen fribolitatea izan zela,

La **Sra. Aguirre Unceta** cree que el motivo de que la ejecución de este proyecto se haya demorado tanto tiempo es la frivolidad con la que se llevó a cabo

eta eskatzen du hemendik aurrera leialtasunez jokatzeko herritarrekin.

el derribo del antiguo mercado y solicita que a partir de ahora se actúe lealmente con la ciudadanía.

**Alkate-udalburu jaunak** esan du Osoko bilkura honen eztabaidapean jartzen den proiektua prozesu parte-hartzailean definitu ziren erabilera orokorretan oinarrituta dagoela.

Orobat, zehaztu du gertatutakoa azaltzea ez dela erantzukizunak saihestea, eta, zentzu horretan, bere gain hartzen du Eibarko EAJ-PNV udal taldearen proposamena onartu izanaren erantzukizuna, bigarren eta hirugarren lizitatzaileekin merkataritza gune bat egoteko posibilitatea baloratzeko; halaber, bere gain hartzen du, Eibarko dendarien ordezkariekin batera, Errenteriako merkataritza gunea bisitatzera joan izanaren erantzukizuna. Saiakera horiek guztiak alferrikakoak izan ziren, zeren obren lizitazioan parte hartzeko interesa zuten enpresa guztiek orubea saltzea exijitzen baitzuten, haren gaineko hipoteka bat eratzeko eta hala beharrezko finantzazioa lortzeko. Gainera, azaldu du ezen orubea saldu ordez administrazio-emakida bat eman balitz, prozedura eta berreskuratzeko kostua berdinak izango zirela. Ukatu egin du Errebalgo orubeagatik 650.000 euro ordaindu direnik,

El **Sr. Alcalde-Presidente** afirma que el proyecto que se somete a la consideración de este Pleno está basado en los usos genéricos que se definieron en el proceso participativo.

Igualmente, precisa que explicar lo sucedido no significa eludir responsabilidades, y, en este sentido, asume la responsabilidad de haber aceptado la propuesta del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV para sondear con el segundo y tercer licitador la posibilidad de que hubiera un centro comercial; también asume la responsabilidad de haber acudido, junto con representantes de los comerciantes eibarreses, a visitar el centro comercial de Errenteria. Todos estos intentos fueron valdíos puesto que todas las empresas interesadas en participar en la licitación de las obras exigían la venta del solar con la finalidad de constituir una hipoteca sobre el mismo y poder obtener así la financiación necesaria. Además, expone que, en el caso de que se hubiera otorgado una concesión administrativa en vez de vender el solar, el procedimiento y el coste de recuperación hubieran sido los

baina egia da orubearen balorazioa 650.000 eurotan ezarri zela gehi hornikuntza batzuk, guztira lau milioi euroko zifra iristeraino. Hortaz, partzela berrerostean, enpresa jabeari lehen kopuru hori ordaindu zitzaion gehi egin ziren inbertsioen kostua.

mismos. Niega que se hayan abonado 650.000 euros por el solar de Errebal, pero lo que sí que es cierto es que la valoración del mismo se fijó en 650.000 euros más una serie de dotaciones, hasta alcanzar la cifra total de cuatro millones de euros. Por tanto, al recomprar la parcela se abonó a la empresa propietaria esa primera cantidad más el coste de las inversiones que se habían llevado a cabo.

Gogorarazi du, geroago, eta Euskal Herria Bildu udal taldearen eskariz, prozesu parte-hartzaile bat artikulatu zela denbora luzatu zena, baina azkenean onuragarria izan dena proiektua definitzeko. Horren haritik, argi laga nahi du bere erantzukizuna, bai eta “Dragados" enpresari obren adjudikazioaren aldeko botoa eman izana ere —balorazio-txosten teknikoen arabera—, eta aurrerago kontratu hori suntsitu izana, ezin zuelako onartua herriari xantaia egitea.

Continúa su exposición recordando que, posteriormente, y a petición del grupo municipal de Euskal Herria Bildu, se articuló un proceso participativo que se prolongó en el tiempo, pero que a la postre ha resultado beneficioso para la definición del proyecto. A este respecto, desea dejar constancia de su responsabilidad, así como de haber votado favorablemente la adjudicación del contrato de obras a la empresa “Dragados” -de acuerdo con los preceptivos informes técnicos de valoración- y de la posterior rescisión de dicho contrato, ya que no podía asumir un chantaje a la ciudad.

Azkenik, gezurtatu egin du inolako utzarazpenik egon denik; izan ere, jarraitu egin zaie prozesu parte-hartzailearen ondorioei, zeinek eskatzen zuten “*gatazka konpontzea emakida mantentzen duten saltokiekin, merkatuaren programan sartuta bideragarria bada, edo akordio bat*

Por último, desmiente que se haya producido desahucio alguno, ya que se han seguido las conclusiones del proceso participativo en el que abogaba por *“solucionar el conflicto con los puestos que mantienen concesión mediante su inclusión en el programa de*

*negoziatuz”*. Horren harira, saltoki horiek lehentasuna izango lukete Errebalgo azoka berrian sartzeko eta ia guztiei eman zitzaien emakida hori erreskatatzeko kalte-ordaina, eta prekarioan egotea baimendu zitzaien, jakinik ez zutela jada inolako eskubiderik.

*mercado, si es viable, o negociando un acuerdo mutuo”*. En este contexto, esos puestos tendrían prioridad de acceso al nuevo mercado de Errebal y a prácticamente todos ellos se les indemnizó por el rescate de dicha concesión, al tiempo que se les permitió permanecer en precario a sabiendas de que ya no ostentaban derecho alguno.

Hemendik aurrera, beharrezkoa da elkarrizketak izatea lehen sektorearen ordezkariekin, baserritarren espazioa behar den bezala kudeatzeko, bai eta prozesu parte-hartzaile berri bat hastea ere, merkatu-plazaren espazio berriaren erabilerak definitzeko.

A partir de ahora es necesario continuar las conversaciones con los representantes del sector primario con el fin de gestionar adecuadamente el espacio de las baserritarras, así como iniciar un nuevo proceso participativo para definir los usos del nuevo espacio de la plaza del mercado.

Lizitazioari ahalik eta epe laburrenean ekiteko asmoz, obra-kontratu berriaren administrazio-klausula bereziak udal taldeen hainbat eskari sartu ditu eta, zentzu horretan, adierazi du errespetatu egingo dela agiri horretan ezartzen den exekuzio-epea.

Con el fin de proceder a la licitación en el más breve plazo de tiempo posible, el pliego de cláusulas administrativas particulares del nuevo contrato de obras ha incorporado diversas peticiones de los grupos municipales y, a este respecto, afirma que se respetará el plazo de ejecución que se fije en dicho pliego.

Eztabaida amaituta, eta kontuan hartuta 2018ko abenduaren 14ko Hirigintza, Obra eta Ingurumen Lan Batzordearen aldeko irizpena.

Finalizado el debate, y considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente de 14 de diciembre de 2018.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, hamar boto alde (PSE-EE) eta hamaika abstentzio (Euskal Herria Bildu, EAJ-PNV eta Irabazi), ondokoa erabaki du:

El Pleno de la Corporación, por mayoría de diez votos a favor (PSE-EE) y once abstenciones (Euskal Herria Bildu, EAJ-PNV e Irabazi), adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**Aurrena.-** Errebal funtzio anitzeko eta kultura-ekipamenduko eraikinaren proiektu eraberritua onartzea.

**Bigarrena.-** Obra Sailari eta Kontratazio Unitateari honen berri ematea kontratazio-prozedurari hasiera eman diezaioten.

Eta, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez; eta eguerdiko hamairuak eta berrogeita hamarrean, Alkate-Udalburu jaunak amaiera ematen dio Osoko Bilkurari, nik, Idazkari Orokor naizen honek, horren fede emanez.

**ACUERDO**

**Primero.-** Aprobar el Proyecto de Ejecución Reformado de edificio multifuncional y equipamiento cultural Errebal.

**Segundo.-** Dar traslado al Departamento de Obras y a la Unidad de contratación para iniciar el procedimiento de contratación del mismo.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las trece horas y cincuenta minutos, el Sr. Alcalde-Presidente levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. / Vº Bº
ALKATE UDALBURUA/

| | |
|---|---|
| EL ALCALDE-PRESIDENTE, | IDAZKARIAK / EL SECRETARIO |
| Miguel de los Toyos Nazabal | Juan Agustín Villafranca Bellido |